

Bizkaia

cespa

DURANGO
Udala · Ayuntamiento

DURANGO
Garena eginez Vivir y convivir





# Ingurumena zaintzea denon ardura da, eta horixe ari gara erakusten Durangon

# Cuidar el medio ambiente es cosa de todas las personas, y Durango lo está demostrando

**Sortzen ditugun hondakinak birziklatzea eta berrerabiltzea bide eraginkorrenetako bat da ingurumena zaintzeko eta ondorengoei planeta berdeagoa eta ongizate-etorkizuna uzteko.**

Talde-lana da hau, denok jarri behar dugu gure alea aurrera egiteko. Durangon, hondakinen bilketa sistemaren inguruko datu bikainak jaso ditugu 2019an eta 2020an, eta datu horiek baieztatzen digute durangar gehienak jabetzen direla birziklatzeak duen garrantziaz eta ingurumenarekin konprometituta daudela.

Herrian birziklatutako eta berrerabilitako hondakinen kopurua goraka doa, eta horrek poz handia eragiten digu Durangoko Udalean, baina poz hori adierazteaz gain, batez ere zintzotasunez zoriondu gura ditugu durangarrak planeta garbiago baten alde adierazten duten konpromisoagatik.

Lan hau etenbakoa da, eta, horregatik, orrialde hauen bitartez, zuekin 2019 eta 2020ko birziklapenari buruzko datuak partekatzeaz gain, ohiko gomendio eta gogorarazpen batzuk helarazi gura dizkizuegu birziklapen eraginkorragoa egin ahal izateko eta gure herriko kaleak garbiago mantentzeko. Minutu batzuk hartu eta adi irakurtzea gomendatzen dizugu.

***Berriro ere, eskerrik asko!***

**El reciclaje y la reutilización de los residuos que producimos es una de las vías más eficaces para cuidar el medio ambiente y legarles a nuestros descendientes un planeta más verde y, con él, un futuro de bienestar.**

Se trata de un trabajo colectivo, una tarea en la que todos debemos poner nuestro grano de arena. Y los excelentes datos que hemos obtenido del sistema de recogida de residuos de Durango en 2019 y 2020 confirman que una mayoría de los durangueses y duranguesas lo entiende y está comprometida con el cuidado del medio ambiente.

Desde el ayuntamiento de Durango queremos no solo mostrar nuestra satisfacción por el creciente volumen de residuos reciclados y reutilizados, sino también, y sobre todo, felicitar sinceramente a toda la ciudadanía por su compromiso colectivo con un planeta más limpio.

Es un trabajo continuo y, por ello, aprovechamos estas páginas para compartir contigo, junto con las cifras de reciclaje de 2019 y 2020, los consejos y recordatorios habituales para una recogida y reciclaje eficaces, así como para mantener más limpias las calles de nuestro municipio. Te aconsejamos que dediques unos minutos a repasarlos con atención.

***De nuevo, ¡muchas gracias!***

# Ezagutu Durangoko hondakin-bilketako zenbaki orokorrak

# Conoce en cifras generales la recogida de residuos en Durango

## BIRZIKLATUTAKO HONDAKINAK

**2019 / 2020**

**↑ % 19,44**

## RESIDUOS RECICLADOS

**BIRZIKLATUTAKO HONDAKINEN BILAKAERA 2019-2020 (KG) • EVOLUCIÓN RESIDUOS RECICLADOS 2019-2020 (KG)**




2020an
**%11**
hazi da

Incremento del
**11%**
en 2020




HONDAKINAK
### BEIRA

Ezpurutasunak kendu eta gero, beirazko ontzi zaharren materialarekin berriak egin daitezke, jatorrizko ontzien kalitate eta propietate berberekin. Horrela, beira ia mugagabe birziklatu daiteke, eta horri esker, lehengaiak eta energia izugarri aurreztu daitezke.

RESIDUOS
### VIDRIO

Una vez eliminadas las impurezas, el vidrio servirá para fabricar nuevos envases de la misma calidad y con las mismas propiedades que los originales. Así el vidrio puede reciclarse de forma casi indefinida, lo que supone un enorme ahorro de materias primas y energía.




2020an
**%15**
hazi da

Incremento del
**15%**
en 2020




HONDAKINAK
### PAPERA ETA KARTOIA

Paper mota guztiak berriro erabil daitezke lehengai gisa. Papera birziklatuz gero, milaka zuhaitz botatzea eragozten dugu eta saihestu egiten dugu ekosistemak eta haien mende dauden espezieak suntsitzea. Durangon atez ateko zerbitzua daukagu denda eta udal bulegoetarako.




2020an
**%3,9**
hazi da

Incremento del
**3,9%**
en 2020



**Atez atekoa**
**Puerta a puerta**

RESIDUOS
### PAPEL Y CARTÓN

Todos los tipos de papel pueden reaprovecharse como materia prima. Así, salvamos miles de árboles y evitamos la destrucción de ecosistemas y las especies que dependen de ellos. En Durango disponemos de un servicio de recogida puerta a puerta para comercios y oficinas municipales.




2020an
**%16**
hazi da

Incremento del
**16%**
en 2020




HONDAKINAK
### ONTZIAK

Plastikoa material oso kutsakorra da, petrolioarekin ekoizten dena, eta petrolioa lehengai ez-berriztagarria da. Plastikoaren zati bat baino ezin da aprobetxatu, baina hondakin hauek naturan amaitzea saihestu behar da, plastikoa deskonposatzeko 100 urte behar direlako.

RESIDUOS
### ENVASES

El plástico es un material altamente contaminante fabricado con petróleo, una materia prima no renovable. Solo una parte del plástico puede aprovecharse, pero se debe evitar que estos residuos acaben en la naturaleza, donde pueden tardar 100 años en descomponerse.




2020an
**%7**
hazi da

Incremento del
**7%**
en 2020



HONDAKINAK
### ALTZARIAK

Altzariak, oholak, mota guztietako altzari handiak… bota gura badituzu, deitu **900 701 016** telefonora, altzariak biltzeko udaleko doako zerbitzura. Horrela, material horiek berraprobetxatu ahal izango dira, eta, gainera, gure kaleak libre egongo dira pertsonentzat eta ibilgailuentzat.

RESIDUOS
### MUEBLES

Muebles, tablas, enseres voluminosos de todo tipo… siempre que quieras deshacerte de ellos llama al **900 701 016**, servicio gratuito del ayuntamiento, para su recogida. Así, sus recursos podrán reaprovecharse y, además, nuestras calles se mantendrán despejadas para personas y vehículos.




2020an **%20** hazi da

Incremento del **20%** en 2020




## HONDAKINAK OLIOA

Olioaren edukiontzian etxeko olioa jasotzen da. Plastikozko botiletan edo tetrabrik zarratuetan sartzen dira edukiontzetara. Erabilitako olio hori ez da egokia gizakiok berriro kontsumitzeko, baina tratatu eta gero motorrentzako bioerregaiak egin daitezke, eta xaboiak, kandelak, pinturak eta bernizak ere ekoitz daitezke.

## RESIDUOS ACEITE

El contenedor de aceite recoge aceite doméstico. Se introducen en el contenedor en botellas de plástico o tetrabriks cerrados. Este aceite utilizado ya no es apto para el consumo humano, pero con su tratamiento se pueden producir biocarburantes para motores y también, gracias a ellos, pueden obtenerse jabones, velas, pinturas y barnices...




2020an **%9** jaitsi da

Descenso del **9%** en 2020




## HONDAKINAK ERREFUXA

Edukiontzi honetan berrerabili eta birziklatu ezin diren hondakinak botatzen ditugu. Grisa da, eta etxeko hondakinak botatzeko azken aukera izan behar da. Frakzio horrek oraindik material balorizagarriak izan ditzake, eta, horregatik, material horiek berreskuratzeko tratamendu espezifiko bat egin daiteke. Gainera, frakzio horri egindako tratamenduen bidez produktu berri bat (energia) sortzeko prozesuak ere gara daitezke.

## RESIDUOS RESTOS

Este contenedor recibe aquellos residuos que no pueden ser reutilizados ni se pueden reciclar. Es de color gris. Debe ser la última elección a la hora de depositar nuestros residuos domiciliarios. Esta fracción todavía puede contener materiales valorizables y de ahí que se realice un tratamiento específico para la recuperación de dichos materiales así como procesos para la extracción de un nuevo producto (energía) a través de los tratamientos realizados a esta fracción.

**BILKETA SISTEMA BERRIA 2020AN**

**NUEVO SISTEMA DE RECOGIDA EN 2020**






**Atez atekoa**

**Puerta a puerta**

## ARRAINDEGIAK

Atez ateko bilketa zerbitzu espezifiko bat sortu da ekoizle handien arrainhondarrak birziklatzeko. Horrela, arraindegi eta supermerkatuetan batzen dira hondakin horiek beste edukiontzi batzuetara botatzea saihesten dugu.

## PESCADERÍAS

Con el fin de reciclar los restos de pescado de grandes productores, como pescaderías y supermercados, se ha creado un servicio específico de recogida, puerta a puerta, para dichos comercios y así evitar que los restos acaben en otros contenedores.

**EDUKIONTZI BERRIA 2020AN**

**NUEVO CONTENEDOR EN 2020**







## HONDAKINAK ORGANIKOA

Hondakin organikoak bereizita hainbat helburu lortzen ditugu: beste hondakinen tratamendua hobetzen da, zabortegietako karga gutxitzen da eta kutsadura murrizten da. Gainera, hondakin hauek ongarri gisa erabili daitezke.

Albotik kargatzeko edukiontzi berriekin, euren kudeaketa inoiz baino errazagoa izango da.

## RESIDUOS ORGÁNICOS

La separación de residuos orgánicos mejora el tratamiento de los demás residuos, reduce la carga de los vertederos y disminuye la contaminación que emiten. Además, estos residuos sirven como fertilizante.

Con los nuevos contenedores de carga lateral, su gestión será más sencilla que nunca.

### Edukiontzi organikoa irekitzeko txartela. Baimenduak:

- Etxebizitzak
- Ostalaritzako lokalak (6.lokal tipoa: ostalaritza-negozioak eta antzekoak)
- Supermerkatu edo hipermerkatuak (>100m²). (9.tipologia)
- Jantokia duten ikastetxeak




### Autorizados para la apertura de contenedor orgánico con tarjeta:

- Viviendas
- Locales de hostelería (tipo local 6: negocios de hostelería y similares)
- Supermercados e hipermercados (>100m²). (Tipología 9)
- Centros escolares con comedor

| | | |
|---|---|---|
| **13.673**<br>Txartel aktibo (20/12/15)<br>Tarjetas activas (15/12/20) | **204**<br>Jarduera<br>Actividades | **13.297**<br>Egoiliar<br>Residentes |

**HONDAKIN ORGANIKOEN BILKETA:**

**175.000 KG 8 HILABETEAN,**

**GEHIEN JASOTZEN DUEN BIZKAIKO UDALERRIETAKO BATEAN KOKATUZ**

**RECOGIDA DE RESIDUOS ORGÁNICOS:**

**175.000 KG EN 8 MESES,**

**SITUÁNDONOS EN UNO DE LOS MUNICIPIOS VIZCAÍNOS QUE MÁS RECOGE**

DURANGO
Garena eginez Vivir y convivir



## Martxoaren 1etik aurrera, berrikuntzak edukiontzi marroian

## Novedades en el contenedor marrón, a partir del 1 de marzo

Bizkaiko Foru Aldundiak aldaketak egin ditu hondakin organikoak tratatzeko sisteman. Berrikuntza nagusia da orain hondakin gehiago birziklatu ahal izango dugula:

**Haragi eta arrain gordinak edo kozinatuak, eta kozinatuta edo gordinik egon daitezkeen animalia-hondakinak (okela-, hestebete-, arrain- eta marisko-hondarrak, arrautza-hondarrak eta arrautza-oskolak, hezurrak eta gazta).**

Hondakin organikoen edukiontzira bota daitezkeen hondakinen **zerrenda osoa** ikusteko, aldundiaren webgunera sar zaitezkete, **QR kode** honen bidez.




La Diputación Foral de Bizkaia ha modificado el sistema de tratamiento de los residuos orgánicos. Como mayor novedad, la lista de residuos admitidos se amplía con:

**Carne y pescado crudos y cocinados, restos de origen animal cocinados o crudos (restos de carne, embutidos, pescado y marisco, restos de huevo y sus cáscaras, huesos y queso).**

Para conocer la **lista completa** de residuos admitidos y no admitidos en el contenedor de residuos orgánicos, visita la página web de la Diputación a través de este **código QR**.

## Durangoko alde zaharreko edukiontzi mugikorrak

## Contenedores móviles en el casco viejo de Durango

- Bertara, hondakinen frakzio guztiak bota ahal dira: papera/kartoia, hondar-frakzioa, beira, ontziak, pilak eta hondakin organikoak.
- Arratsaldero/gauero, Alde Zaharreko bost lekutan jartzen dira.
- Goizeko lehen orduan, edukiontzi mugikorrak kentzen dira hondakinak husteko.
- Zerbitzu hau behar bezala erabiltzeko, hondakin-motak banatu eta dagokien postontzian sartu besterik ez duzu.
- Zerbitzu berri honi esker, Alde Zaharreko biztanleek kalitatezko bilketa-sistema hurbil bezain irisgarria daukagu.

- Se podrán depositar en ellos todas las fracciones de residuos, papel/cartón, fracción resto, vidrio, envases, pilas y restos orgánicos.
- Se colocan cada tarde/noche en cinco ubicaciones del Casco Viejo.
- Por las mañanas a primera hora, los contenedores móviles son retirados para descargar los residuos.
- Haz un buen uso de este servicio, separando cada tipo de residuo y depositándolo en su buzón correspondiente.
- Con este nuevo servicio, las/os vecinas/os del Casco Viejo disponemos de un sistema de recogida de calidad, cercano y accesible.




## Birziklatzeko garbigune txikiak

Durangon birziklatzeko 5 garbigune txiki finko daude, eta, gune horietan, orain arte edukiontzi espezifikorik izan ez duten etxeko hondakinak birziklatu ahal dira: CD eta DVDak, kontsumo baxuko bonbilak, inprimagailuetako kartutxoak, pilak, etab.

### Garbiguneen onurak

- Etxeko hondakinak bereiztea errazten dute.
- Hondakinek ingurumenean duten inpaktua gutxitzen dute (bereziki garrantzitsua tartean hondakin arriskutsuak daudelako: pilak, kontsumo baxuko bonbilak, etab.).
- Produktu berriak ekoizteko lehengaiak aurrezten dira.



## Minipuntos limpios de reciclaje

Durango cuenta con 5 minipuntos limpios fijos, en los que reciclar residuos domésticos que hasta ahora no contaban con contenedor específico: CD/DVD, bombillas de bajo consumo, cartuchos de impresora, pilas, etc.

### Beneficios de los 'Puntos limpios'

- Ofrecer una facilidad más a la hora de separar los residuos domésticos.
- Minimizar el impacto ambiental de los residuos (especialmente importante en el caso de residuos peligrosos como: pilas, bombillas de bajo consumo, etc.).
- Ahorro de materias primas en la fabricación de nuevos productos.

Durango atseginago eta jasangarriago baterantz.
**Denon artean eta denontzat. Zure esku ere badago!**

Porque un Durango más acogedor y sostenible es posible.
Entre todas y para todas. ¡Haz tu parte!